

Hizkuntzen irakaskuntza dela eta

Jose Antonio L. Badiola

Lerro hauetan ingelesaren irakaskuntza hobetzeko asmoz antolatu eta burutu den Lehenengo Mintegi Espainiar-Portugaldarren berri eman nahi nuke.

Mintegi honetako gogoetak ingelesaren irakaskuntzaren ingurukoak izan badira ere, enekiko, erraz aplikatu daitezke txosten honetako ideia asko gure egoeran ere.

Mintegi hau Espainiako Hezkuntza eta Zientzi Ministeritzak eta Portugaleko Hezkuntza Ministeritzak antolatu dute.

Mintegia egiteko asmoa bi erakundeetako arduradunek aurrez izan zituzten harremanetatik sortu zen. Hauei egoki iruditu zitzairen bi lurralde horietako behar eta egoera materialari dago-kien ikuspegitik abiatuz, hizkuntz irakaskuntzarako irakasleak eta metodologia prestatzeko hurbilpen bati ekitea. Izan ere, bi lurralde horiek Mediterraneoaren alorrekoak dira eta horien egoerak ez du EEEdo eta Ipar Europako nazioetakoaren antzik.

Mintegiaren gibelean iritzi bat dago: bi lurralde horiek badutela zerikasirik franko ingelesaren inguruko nazioen eskarmentutik eta horietan egin diren azterketetatik. Baina zer irakatsirik ere badute eta baita garatu, aztertu eta ebaluatzeko esperientzia ugari ere, beren beharrei erantzungo dieten bideak bilatzeko, programazioari, irakaskuntzari eta irakasleen prestakuntzari dagokienean, hain betikoaren jarraitzaile izateari utziz eta errealistagoak izanez.

1. MINTEGIAREN HELBURUAK

Honako gai hauei buruzko eztabaidaren oinarriak ezartzea izan da mintegia-ren helburu nagusia:

- Curriculumaren eraketa, «ikuspegi komunikatiboari» aipamen berezia eginez.
- Ikuspegi horren inplikazio metodologikoak: irakasteknika berriak.
- Hizkuntz programa: ereduak eta helburuak.
- Irakaslearen eta ikaslearen egitekoa: beharrak, eskariak eta xedeak.
- Hizkuntza curriculumaren barnean.
- Irakaslegoaren prestakuntza jarraia.

2. PROGRAMAREN GARAPENA

Mintegiaren ezaugarri nagusiak bi izan ziren zalantzarik gabe: bertan egon direnen partaidetza maila gorena eta azpigai bakoitzeko aurkeztu diren alter-

natiba teoriko-praktikoen ugaritasuna; hitz gutxitan esateko: une bakoitzean eztabaidapean zegoen irakaskuntzaren alderdiari buruzko ekarpen pertsonalen aberastasuna.

Jorratu ziren gaiei buruzko ekarpen pertsonalak hainbeste izateak —taldeka lan eginez eta gero denen arteko bileran ondorioetara iristen saiatuz— nahaspila puska bat sortu zuen, baina «nahaspila sortzailea» beti ere. Mintegiaren izenburua bera, «*Common Problems in the Teaching of English*», hain zabala izaki, irakaskuntzarekin zerikusi handia duten arazoen iturria agortezina da eta amaierarik gabeko eztabaidei bide emateko hainbat galdera sortzen du: alderdi jakin bat une berean lantzen ari diren hiru taldek hiru erantzun diferente ematen ditu. Talde bakoitzak lehentasuna merezi duela uste duen alorra jorratzen du bereziki eta bere proposamenak aurkezten ditu. Hiru taldeen proposamenak laburbilduz, emaitza orokor bat ateratzen da azkenean; eta horixe da txosten honen bidez egin nahiko nukeena.

Hainbeste kide dituen taldearen proposamenak laburbiltzekoan ezinbestean aldatuko dira, apur bat bederen, zenbait irakasleren ekarpenak edo gehiegi azpimarratuko beste batzurenak. Alabaina, ikuspegi osoa eman nahi dugu eta, horretarako, saio guztietako konklusioak bateratuko ditugu, edukia sail handitan eraturik (zein egunetan edo zein saiotan landu ziren kontuan hartu gabe; hau da, ondorioak ez ditugu kronologiaren arabera sailkatu, mintegiaren ondoren alorrez alor bildu eta birlandu baizik).

Jardunaldiak egiteko moduak eta ikutu ziren gaiek berek ere horretara bultzatu gaituzte. Begien bistakoa da, esate baterako, irakaskuntz programa «komunikatiboa» onartzeak (lehenengo eguna) irakasle/ikasleen eginkizunak aldatu egiten dituela (bigarren eguna) eta irakasleen prestakuntzako edukiak eta egiturak aldatu beharko direla (laugarren eguna). Irakaskuntzaren alderdi guztiak elkarrekin oso esturik lotuta daude eta bat aldatzeak berehala dakar besteen aldaketa; eztabaida-saioetan

garbi aski azaldu zen hori eta garbi ageri da artikulua honetan ere.

3. METODOLOGIA

1.— «*Metodo*» kategoria eta «*ikuspegi*» (enfoque) kategoria elkarrengandik berezi behar dira lehenengo. Elkarri eta estu-estu loturiko programazio, helburu, irakasteknika eta ikasmekanismoen filosofia hertsiki eta trinkoari deritzo «*metodoa*». «*Ikuspegia*», berriz, iritzi zabalagoa da, eta beste metodo batzuri ere aplika dakizkiokeen zenbait jarrera eta teknikatan du ardatza.

2.— Zenbateraino da komunikatiboa «*ikuspegi komunikatibo*» deritzona? Nozio/funtzioak item semantikoen zerrenda berria —beti ere zerrenda dena— lehen ematen ziren item gramatikalen zerrendak baino gehiago ote dira? «Komunikazio» hitzak diskurtsoaren barnean esanahiak negoziatzeko egiturak eta funtzioak sormenez erabiltzea adierazi nahi duenez, funtzioak isolatzeak egiturari esanahiaren elementua eranstean dio; baina hori ere, besterik gabe, ez da komunikazioa.

3.— Informazioa ematen duen zerbait eta zertaz informatua eskainiko duen zerbait existitzea (informazio jauzia) da, komunikazioaren oinarrietako bat. Begi bistakoa da, beraz, komunikazio-egoerarik onena sortzeko modua ikasleen benetako xede pertsonalei begiratzea dela. Ondorioz, programa komunikatiborik onena programarik eza da. Eta horretantxe dago «*ikuspegi komunikatiboaren*» paradoxa. Irakaskuntz programa zenbat eta landuagoa izan, orduan eta komunikagarritasun gutxiago izango du derrigorrean.

4.— Aipaturikoen ondorioz «*ikuspegi komunikatiboa*» izena bazter zedila iradoki zuen partaide batzuk, nahas-mendua ekartzen omen duelako, eta «*pedagogia aktiboa*» izena erabiltzea proposatu zuten. Honek badu irakas-teknikekiko erreferentzia aintzinean, baina ikaskuntzaren filosofiarekin lotura handia ere bai. Bata zein bestea, biak daude gaur «*ikuspegi komunikatiboa*» deitzen dugun horren barnean.

5.— Irakaskuntzako programa orok, beraz, hizkuntz analisi hutsaren eta irakaskuntzako funtzioetarako duen aplikagarritasunaren arteko oreka izan behar du. Gaur egun ikusten denez, irakasleen artean «*ikuspegi komunikatibo*» murriztua edo dago indarrean, hau da, egituren kontrol zorrotzarekin informazioa elkartrukatzean funtsa duten teknikak, eta «*ia-komunikazio-egoerak*» besterik ez da lortzen benetaren.

6.— Hasia da, beraz, *forma* (egitura) ikaskuntzaren oinarri nagusi bezala hartzeko joera baztertzen. *Alderdi semantikoa* aintzakotzat hartzearekin (indar ilokuzionarioa) aurkezpenean eta ariketetan egitura batekin loturako funtzio bat aukeratzera jotzen da, egitura bati aldi berean funtzio bat baino gehiago ez eransteko arreta hartuz.

7.— Gramatika ez da berez jomuga, prezeskiago komunikatzen ikasteko tresna baizik.

8.— Bi ildo desberdin eta elkarren osagarri dira komunikazioan kontuan hartu beharrekoak: jariotasunaren garapena (justutasun gramatikala hainbestekoa izango ez bada ere) eta justutasun gramatikala (jariotasuna hobetzeko oinarri den heinean). Bi ildook elkarren sostengu izan behar dute. Une bakoitzean landu nahi den edo lehentasuna duen alderdiaren arabera (jariotasuna ala justutasuna) aldatuko dira laneko teknikak, ikasle-irakaslearen eginkizunak, etab.

9.— Azkeneko urteotan izan da «*komunikazio*» hitzaren alderdi ahozkoa (ulermena eta adierazpena) bakarrik kontuan hartzeko joera, idatzizko trebetasunen (irakurtzea eta idaztea) kaltetan. Gure kulturaren esparruan azken trebetasun hauek duten hainbateko garrantzia dutelako, lau trebetasunak gehiago integratzearen eta ahozko ez diren trebetasunei arreta handiagoa jartzearen alde daude mintegikideak.

4. TEKNIKAK

1.— Ahozko komunikazioa garrantzeari garrantzia emateak zenbait tekni-

ka mota indartu du (taldeak, bikoteko lana) eta metodologia tradizionalagoak baztertu egin dira.

2.— Baztertuta egon diren trebetasunei (idazmena eta irakurmena) garrantzi handiagoa emango dieten tekniken garapena indartzea komeni da.

3.— Estructuralismoaren eraginez baztertu zen zenbait teknika —itzulpena eta diktaketa, esaterako— berriro ere aztertu beharrekoztat jotzen dute partaideek. Eztabaidan esan zena argitzeke, itzulpena, Espainian eta Portugalen bezala ikasle guztiek amankomunean hizkuntza bat bera duten lurraldeetan, auto-ikaskuntzarako iturrietako bat izan daiteke, eta berriz ere aintzakotzat hartzea merezi du, hainbat urtetan metodologiatatik baztertuta egon ondoren. Testu paraleloak, bestalde, oso aproposak izan daitezke, diskurtsoaren koherentzia eta kohesioa aurkitzen ikasteko, testuinguru ezin hobea eman dezaketelako.

5. PROGRAMEN DISEINUA: HIZKUNTZA ESKOLAKO CURRICULUMAREN MARKOAN

1.— «*Ikuspegi komunikatiboaren*» oinarritzko eskakizunetan bat ikasleak hizkuntza zertarako behar duen edo hizkuntzaren bitartez zer egin nahi duen aztertzetik abiatzea da. Ez da erraza gure irakaskuntzaren mailan komunikazio-beharrek zehazten; horregatik hizkera «*neutroa*» irakasteko joera da zabalduena, gero ikasle bakoitzak bere beharren araberrako ildo berezieta-tik garatuko duen hizkera alegia.

2.— Arrazoizko iruditzen zaigu, gaur-gaurkoz irakasleen hezikera dena delako, programak gramatikako formetan (egituran) oinarritzea eta funtzioak horiei lotzea. Formak errazago banatzen dira programetan, gehiago sistematu dira eta gorputz homogeenagoa osatzen dute.

3.— Ingelesa ez da inolaz ere kolonializatorako tresna bailitzan landuko; aitzitik, zenbat kultura —ez derrigorean anglofonoak— aurkitzeko bide egokia da, nazio arteko hizkuntza zabal

bihurtu da eta. Bestalde, bere kultura propioaren adierazpenerako garraiobide ere bada.

4.— Programak eta materialak ukitzen dituzten gaiak zabalak izango dira, gaurkoak eta kultura bakar baten mugak gainditzeko erakoak.

5.— Bestalde, ikasleek eskatutako gaiak ere leku eman behar zaie. Programak ikasleek eska ditzaketen gaiak ikastaroaren martxan bapatean eta etengabe sartzeko moduan antolatua izan behar du.

6.— Ezinbestekoa da estereotipoei ihes egitea, ikasten den hizkuntzarekin zuzenean lotutako gaiak sartzen direnean. Askotan hizkuntza modernoetako testuliburuaren gibelean errealitatearen ikuspegi gezurrezkoa egoten da, errealitate hori finkoa eta aldaezina bailitzan. Hizkuntza honetako hitzunik burgesia txikiaren jarraitzaile bezala aurkezten dira askotan eta hori, harrigarria izateaz gain, iraingarria ere gerta daiteke zenbait leku eta talde soziale-tan.

7.— Ingelesa nazioarteko komunikazio-tresna bezala sailkatzen dugunean, badu garrantzia atzerriko kulturak gure kulturarekin amankomunean dituzten alderdietatik abiatuz aurkeztu eta elkarrekiko desberdintasunak mugatzeak.

8.— Ama-hizkuntzaren irakaskuntza aparte, funtsezkoa da hizkuntza arrotza/k —biziak zein hilak— irakaslearengan erlatibismoa sortzeko moduan irakastea; ager dadila gauzak hizkuntza batean era batera sailkatu eta adierazten direla eta beste batean bestetan. Gomendagarri litzateke ikastetxeetako hizkuntz sailak elkarrenganatzea, hizkuntz adierazpenaren ikuspegi homogeneoa eman dezaten.

9.— Nabaria da oro har hizkuntza arrotzak eta ama-hizkuntza irakasteko metodoak elkarrengandik zein urruti dauden, beti ere hezkuntzaren ikuspegi zabalagoaren kaltetan. Hizkuntzarekin zerikusia duten asignaturetako teknikak eta ikuspegi metodologikoak elkartrukatzea (ama-hizkuntza barne delarik) oso aberasgarri izan daiteke eskolako curriculumarentzat.

6. IKASLE-IRAKASLEAREN PAPER

1.— *«Ikuspegi komunikatiboak»* irakaskuntzaren ardatza irakaslearengandik irakaslearengana pasatzea dakar eta, ondorioz, aldaketa bortitza klaseen antolamenduan eta plangintzan. Ikasleek ahozko partaidetza handiagoa izango dute, eta horregatik disziplina —tradizioz ulertu den bezala behintzat— galtzeko arriskua dago. Partaidetza handiagoa eskatzen duten lanei ekitea hizkuntz klaseetako ikastaldeak handiak izatearen aurka dago.

Mintegiko partaideek proposatu dute hizkuntza modernoetako klaseetan ez daitezela hogeik ikasle baino gehiago izan taldeko.

2.— Hizkuntza arrotzean komunikazioari lagunduko dion giroa sortzea izan daiteke funtsean irakaslearen egin-kizuna *«ikuspegi komunikatiboan»*. Paradoxa hutsa da gertatzen dena: komunikazioko gaia oso motibatzailea baldin bada, ama-hizkuntzara jotzeko arriskua dago, horixe bait litzateke berez jokararik normalena.

Hizkuntz irakaslearen egoera, beraz, aski bitxia da: hizkuntza arrotzean komunikatzera bultzatu behar ditu gai baten inguruan komunikatzeko berez ama-hizkuntza erabiliko luketen ikasleak. Horrela, gure hizkuntz klaseetako komunikazio-giroa faltsoa da ezinbestean. Egoera zentzugabe hori gainditzeko, antzerkia besterik ez den zerbait ahalik eta egia-itxurarik handiena ematen saiatu beharko du irakasleak.

3.— Bere-berea du metodologia aktiboaren filosofiak —eta honek leku aparta *«ikuspegi komunikatiboan»*— ikaskuntz-irakaskuntz funtzioen barneko erantzunkizunkidetasuna. Irakaslea irakaskuntzaren erantzule da eta, are garrantzitsuagoa dena, ikasleak beren ikaskuntzaren erantzule dira. Ez dira beti ekintza paraleloak ikastea eta irakastea: irakaslea ez da beti ikaslearen ikaskuntz erritmoaren erantzule zuzena. Ikasleak jakin behar du ikaskuntzan dituen arazoei bere kabuz irtenbidea bilatzen.

4.— Irakasleak eten gabeko «feedback» behar du une jakin batean bere irakasteknikak eta materialak ikasleen ezagutzaren mailakoak direla ziur egoteko. Bestalde, ikasleak ikaskuntz prozesuari buruz dituen iritziak ere sistematikoki aintzakotzat hartu behar dira (inkestak eta bitartez jasoz).

5.— Irakasleak bere ikasleen ikasteko moduekiko sentsibilitatea garatu behar du. Ez dute ikasle guztiek hizkuntza produzitzeko gaitasun berdina, eta gaitasun hori ez da «input»-aro bakar eta beraren ondoren azalduko beti. Komeni da, beraz, kontuan hartzea ezin daitekeela itxaron ikasle guztiak hizkuntza arrotzean beren espresioak moldatzeko erritmo berean gauza izango direnik. Produzitzen hasi aurretik batzuk beste batzuk baino epe luzeagoa beharko dute hizkuntza jasotzeko.

7. IRAKASLEEN HEZKUNTZA

1.— Beharrezkotzat jotzen da gero-ko irakaslea hasieratik teoria eta praktikan hezitzea. Mintegian zeudenen ustez, beharrezkoa da linguistika aplikatuaren eta irakaskuntzako metodologiaren teoria jakitea. Metodologia teoriakoa eta praktikoa ikasteak unibertsitate mailako asignatura akademikoa izan behar luke.

2.— Hasierako praktikek tutore/irakasle titularren gainbegirada zuzeneko eskatzen dute eta berak izan behar luke praktikak egiten direnako ikastaldearen erantzule zuzena. Praktiketan ari den irakasle horrek klase-ordu gehiegi ez izatea, baina dagoela etengabe irakasle titularrekin harremanetan, hauekin batean lan eginez, klaseak prestatzen lagunduz, etab.

8. IRAKASLEGOAREN HOBEKUNTZA

1.— Beharrezko dirudi irakaslegoaren hobekuntzarako edozein politika orokor moldatu aurretik, gaurko irakaskuntzaren profila mugatuko duen ikerketa egiteak: lanean ari diren irakasleek

mailaz maila dituzten gaitasunak, eza-gutzak eta trebetasunak.

2.— Pedagogia sistematikoki eguneratu eta berritzeak ekintza guztien hezurdura dadineko oinarri filosofikoa-ren lantzea eskatzen du. Honako aspektu hauek hartu beharko lituzke kontuan hobekuntzaren filosofiak:

- irakasle bakoitzaren hobekuntza eta garapen pertsonala;
- garapen honek gizarteari ekarriko dion onura;
- kultur identitate propioa adierazi/analisa/igortzeko erarik onena;
- gure kultur nortasun hori nazioarteko kontestuan hobekien txertatzeko modua.

3.— Maila guztietako irakasleen —unibertsitatekoak barne— «hezitzaileak» prestatzea beharrezkotzat jotzen da. Orobat garrantzi handia du «hezitzaile» hauek irakaskuntzarekin harreman zuzenekoak izan dezaten— irakaslegoa erreziklatzen ari diren mailetan ere bai—.

4.— Giza eta diru-baliabideei, beti ere urri direnei, ahalik eta etekinik handiena kentzeko, garrantzizkoa da hobekuntz ekitaldi, ikastaro, jardunaldi eta abarretan izan diren irakasleak horietan lortutako ezagutza eta trebetasunak beren kideen artean zabaltzera behartzea (eta lan hori erraztea ordutegia gutxituz).

5.— Eskola-markoan hezkuntzaren ikerketa indartzeak komenigarri ematen du, eta horretarako:

- Dirua eta kanpotikako laguntza eskuratzea (unibertsitate sailekin harremanak, esate baterako).

— Beste zenbait irakasleren klaseak ikusteko aukera sistematikoak ematea —zentru batean edo gehiagotan—. Klaseen behaketa irizpide deskriptiboz egin behar da, ez ebaluatzeko asmoz. Ez dago hezkuntz lanbidean aldaketa eta hobekuntzarik klasean zer gertatzen den zehatz eta mehatz jakin gabe. Horregatik interesgarria da hezkuntz ikerketak ildo honetatik bultzatzea, beti gogoan edukirik gaur arte ekintza horretako eredu guztiak deskribatzaileak izan direla bakar-bakarrik.

6.— Hobetze lan hauek era askotakoak izan behar lukete edukiari eta iraupenari dagokionean, irakaslegoaren profilaren arabera. Dena den, honako iradokizun hauek egiten dira:

Irakaslegoaren hizkuntz gaitasuna handitzekoa, metodologian gaurkotzen den une berean. Hizkuntz gaitasuna denbora luzean beraren mendean egonez eta bera lantzen arituz bakarrik lortzen da. Horretarako inbertsioa handia behar da. Alabaina, eskuarteko giza baliabideak izan daitezke soluziobide bat lekuan lekuko irakasle taldean anto-

latuz, leku bakoitzean bertako beste irakasle baten zerbitzuez balia daitezken. Gaurkotzeari era honetan ekitea eraginkorragoa dateke —sistematikoa goa datekeelako— eta merkeagoa ere bai.

Ikastaro arrunt, ikastaro trinko, mintegi iraunkor, talde-lan eta abarren bitartez hobekuntzarako ekintzak burutu daitezkeen arren, komenigarri dirudi beste zenbait jardupideri ere sostengu emateak —estranjeriarako irteerak, etab.— honelako egintzak oso garestiak izanik ere.

Itzultzailea: Boni Urkizu

CONSIDERACIONES EN TORNO A LA ENSEÑANZA DE IDIOMAS

El artículo pretende presentar el trabajo realizado en el Primer Seminario Hispano-Portugués sobre la Enseñanza del Inglés.

Tras hacer una referencia a los objetivos del mismo, al programa y a la metodología utilizada, el autor presenta las conclusiones y propuestas emanadas del grupo de participantes en torno a los temas siguientes:

- Metodología
- Técnicas de enseñanza
- El problema del diseño de programas
- Los roles del profesor y del alumno
- Formación inicial y perfeccionamiento del profesorado

LANGUAGE TEACHING: SOME CONSIDERATIONS

In this article, the work carried out at the First Hispano-Portuguese Seminar on the Teaching of English is analysed.

The author first presents us with the aims of the above seminar, the programme and the methodology used. He then discusses the conclusions reached and the proposals put forward by the group of participants concerning:

- Methodology
- Teaching techniques
- The problem of syllabus design
- The roles of the teacher and the student
- Initial and further teacher training

CONSIDERATIONS AUTOUR DE L'ENSEIGNEMENT DES LANGUES

L' article essaie de présenter le travail réalisé au premier atelier Hispano-Portugais sur l'enseignement de l'anglais.

Après un rapport aux objectifs de l'enseignement, du programme et de la méthodologie utilisés, l'auteur présente les conclusions et les propositions émanées du groupe des participants sur les thèmes suivants:

- Méthodologie
- Techniques d'enseignement
- Le problème du dessin des programmes
- Les rôles du professeur et de l'élève
- La formation initiale et le perfectionnement du professorat